

# OSASUNAREN ALDEKO AKORDIOA

**30 EKINTZA  
OSASUNAREN ALDE**



eman botoa  
vota

**eaj  
pnv**

EAJ-PNV.EUS



# OSASUNAREN ALDEKO AKORDIOA

Osasuna bermatzea Nazio Batuen 2030erako Garapen Iraunkorreko Helburuen parte da. Osasuna da pertsona guztiok, gizarteko kide garen aldetik, bizitzeko oinarrizko eskubidea izatea ahalbidetzen digun funtsezko faktoreetako bat.

Euskadik arreta soziosanitarioko sistema indartsu bat du, herritarrek eskubide horretaz berme handiagoz gozatzea ahalbidetzen duena, osasun fisiko eta mentaleko maila altuetara iritsiz. Euskal sistemak bilakaera izan du azken hamarkadetan, azken aurrerapen zientifikoak eta teknologikoak gehitzeko, eta horri esker, hobetu egin dira pazienteekiko arreta eta osasun- eta laguntza-zerbitzuen kudeaketa.

Covid-19ko krisiak arrisku pandemikoetatik babesteko beharreakin lotutako erronka berri bat gehitu du. EAJ-PNVk tinko egiten du gure sistema publiko sozio-sanitarioa sendotzeko eta indartzeko apustua, etorkizunean gerta daitezkeen koronabirusaren edo beste pandemiaren berragerpenak saihesteko. Horretarako, lehen mailako arreta-zerbitzuak eta kasu berrien detekzio goiztiarra sustatu behar dira, baita horiek kontrolatu ere, zabaldu eta kutsatu ez daitezten.

Ondorio horietarako, EAJ-PNVren konpromisoa da Osasun Publikoaren Lege bat onartzea hurrengo legegintzaldian. Lege horrek esparru integratua ezarriko du erkidegoko osasun-arriskuak prebenitzeko, kontrolatzeko eta horien aurrean jarduteko, pandemia berrien edo infekzio-agerraldien ondorioz.

Beharrezkoa da, halaber, osasun-sistema publikoari ospitale-ekipamendu eta -baliabide berriak ematea, eta osasun-zerbitzu eta -produktu estrategikoetan autohornidura bermatzea. Horrek esan nahi du osasun-sistemaren eta zientzia-, teknologia- eta enpresa-sistemaren arteko lankidetzaz-esparru egonkor bat ezarri behar dela, Euskadi osasun-ikerketako europar polo bat izan dadin.

Osasun-sistema osatzen duten gizarte-laguntzako eta -arretako zerbitzuak ere indartu behar ditugu, batez ere adinekoei eta pertsona ahulenen kolektiboek zuzendutakoak. Pertsona ardatz duten egoitza integralen eredian aurrera egin behar da, etxeko zaintzaren eta egoitza-zaintzaren artean oreka handiagoa lortuz.

Euskaditik, murgilduta gauden trantsizio sozial eta sanitarioari erantzuteko, EAJ-PNVk osasunaren aldeko Akordio handi bat bultzatzea proposatu du, bere ikuspegia zabaltzen duena sistema zientifiko, teknologiko eta enpresariala integartzeko, sistema sanitario eta sozio-sanitarioari laguntzeko.

Osasunaren aldeko Akordioak osasunaren eta arreta soziosanitarioaren sistema publikoa indartzeko 30 ekintza biltzen ditu, 4 ardatzetan egituratuta: osasun-sistemaren hobekuntza; osasunaren prebentzioa, babesa eta sustapena; ikerketa eta berrikuntza, osasun-sistemaren eta zientzia-, teknologia- eta enpresa-sistemaren artean lankidetzan arituz; eta adinekoei, gaixotasun kronikoak dituztenei eta mendekotasun-egoeran edo -arriskuan daudenei arreta emateko sistema indartzea.

Akordioaren helburu orokorra da "osasunaren eta gizarte-arretaren euskal sistema publikoa sendotzea, Europako sistema onenetako bat izan dadin, eta gai izan dadin Covid-19aren harira bizi izan diren krisieiei eta etorkizuneko osasun-krisieiei erantzuteko".

Helburu horrekin, EAJ-PNVk bi erronka espezifiko ezarri ditu 2025erako:

- a) Osakidetzako plantilla berritzea, enplegu publikoko 4.000 lanpostu berriekin;
- b) Telelaguntzako gizarte-zerbitzuak 80 urtetik gorako biztanleriaren % 100era zabaltzea.

Osasunaren aldeko konpromisoa Basque Country 2030 Agendan sartzen da, eta Nazio Batuek ezarritako Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen laguntzen du.

# 30 BASQUE HEALTH EKINTZA OSASUNAREN ALDEKO AKORDIOA

## I OSASUN-SISTEMA HOBETZEA

1. Osasun-sistema publikoa indartzea. 4.000 lanposturen deialdia egitea Lan Eskaintza Publikoetan, Osakidetza plantilla berritzeari ekiteko, kalitatezko enplegu publikoa bermatuz
2. Lehen mailako arretaren lehentasuna. 400 mediku berri prestakuntza ematea, egoitzako barne-erizaintzako plazak handitzea eta azpiegitura berriak irekitzea Gasteizko, Murgiako, Donostiako, Aretxabatako, Ordiziako, Zallako eta Bilboko osasun-zentroetan
3. Covid-19ren jarraipena eta euspena. Plantilla handitzea, familiako eta komunitateko erizaintzako espezialisten 35 plaza berriekin, OMEk gomendatutako tresnak eta protokoloak ezartzea eta beharrezkoak diren PCR test guztiak izatea
4. Osasun hobea lortzeko ekipamendu eta azpiegitura berriak. Osakidetza ospitale eta osasun-zentroetako ekipamenduak eta instalazioak berritzea eta egokitzea, osasun-arreta hobetzeko eta osasun-sistema publikoa indartzeko.
5. Farmazia-erabilera egokia eta arduraduna. Emaitzen arabera ordainketa-politikak garatzea farmazia-industriari, eta osasun-sistema publikoari Farmazia Soziosanitarioko Unitate bat ematea, adinekoen egoitzei sendagaiak modu zentralizatuan emateko
6. Osasunaren Behatokia abian jartzea. Alerta goiztiarreko mahai bat ezartzea munduko pandemia kasuetarako, Euskadin kontingentzia-protokoloak eta -planak finkatzeko

## II OSASUNAREN PREBENTZIOA, BABESA ETA SUSTAPENA

7. Osasun Publikoaren Legea. Euskadik Osasun Publikoaren Lege propioa izan dezala proposatzea, Estatuaren "Osasun Publikoaren Lege Orokorra 33/2011, urriaren 4koa" osatu eta gure berezitasunera egokitu dezan
8. 2021-2028 Osasun Plan berria onartzea, 2013-2020 Osasun Planaren ebaluaziotik abiatuta
9. Prebentzio- eta baheketa-programak areagotzea. Batez ere fetuaren eta neonatalaren baheketa, asaldura kromosomikoak zehazteko eta gaixotasunen prebentzio goiztiarra egiteko
10. Minbizi-kasuetan biziraupena handitzea. Pazienteen prebentziorako, ebaluaziorako, kontrolerako eta bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak indartzu eta adimen artifizialeko aplikazioak bultzatu, erabakiak hartzen laguntzeko.

# 30 BASQUE HEALTH EKINTZA

## OSASUNAREN ALDEKO AKORDIOA

|     |   |
|-----|---|
| 11. | Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa eta tratamendua hobetzea, miokardioko infartu akutuaren eta istripu zerebrobaskularren ondoriozko heriotza-tasa murriztuz  |
| 12. | Gaixotasun neurodegeneratiboei arreta berezia ematea. Genetikan eta errehabilitazioan jarduteko plan bat diseinatzea gaixotasun horietara bideratuta, eta horiek prebenitzeko eta artatzeko estrategiaren buru izatea |
| 13. | Txertaketa-egutegia zabaltzea. Informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea, gaixotasun transmitigarrien aurrean herritarrak babesten laguntzeari buruz   |
| 14. | Antibiotikoen gehiegizko erabilerari buruzko kontzientziazioa areagotzea. Herritarren artean antibiotikoen erabilera egokia sustatzeko estrategia bat garatzea, etorkizunean erresistentziazirik ez izateko           |

### III

#### IKERKETA ETA BERRIKUNTZA. OSASUN-SISTEMAREN ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA ENPRESA-SISTEMAREN ARTEKO LANKIDETZA

|     |   |
|-----|---|
| 15. | Osasun-arloko 2025eko I+G+b estrategia berri bat onartzea. Helburua da osasun-sistemak aplikazio klinikora eraman daitezkeen emaitzak sortzeko duen gaitasuna handitzea   |
| 16. | Osasuneko I+G+b erakundeen sareko funtzionamendua indartzea. Estatu mailako eta nazioarteko aliantza estrategikoak sustatzea, Euskadi osasun-ikerketako Europako polo gisa eta I+G+bko bikaintasun-erreferente gisa kokatzeko   |
| 17. | Euskal osasun-sistema publikoaren eta beste erakunde batzuen arteko berrikuntza irekia eta lankidetzakoa garatzea, nazioartean lehiatzea ahalbidetuko digun masa kritiko nahikoa lortzeko   |
| 18. | Osasun-arloko profesionalen arteko ikerketa sustatuko duen arau-esparru berri bat onartzea. Helburua da ikerketa sustatzea eta osasun-arloko profesionalen parte-hartzea saritzea osasun-arloko I+G+b jardueretan, eta, gainera, haien eta sistema zientifiko-teknologiko-enpresarialaren arteko harremana eta lankidetzaren erraztea |
| 19. | Osasun-ekipamendu berriak garatzeko baterako proiektuak sustatzea. Teknologia berrien eta osasun-ekipamenduen ikerketa-, garapen-, baliozkotze- eta frogapen-programak areagotuko dira, euskal osasun-sistemaren eta zientzia-, teknologia- eta enpresa-eragileen parte-hartzearekin  |
| 20. | Euskal osasun-industriaren klusterra indartzea, enpresen, teknologia- eta ikerketa-zentron eta Osakidetzaen arteko elkarrekintzak eta proiektuak indartuz, osasun-ekipamenduak, -zerbitzuak eta -produktuak hornitzeko  |

# 30 BASQUE HEALTH EKINTZA OSASUNAREN ALDEKO AKORDIOA

|     |  |
|-----|--|
| 21. | Adimen artifizialaren aplikazioen garapena areagotzea osasunaren alde, pazienteen gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua hobetzeko tresna gisa   |
| 22. | Ikerketan eta berrikuntzan oinarritutako zehaztasuneko medikuntza pertsonalizatua txertatzea, osasun-laguntza hobea emateko  |
| 23. | Medikuntza birsortzailearen eta terapia aurreratuen (terapia zelularrak eta genikoak) diagnostiko- eta/edo tratamendu-sistemetan eta gaixotasun arraroetan baterako ikerketa-programa berriak ezartzea |
| 24. | Pazienteak ikerketa- eta berrikuntza-prozesuetan aktiboki gehiago sar daitezten aurrera egitea   |
| 25. | Emakumeen patologia espezifikokoak lantzen dituzten ikerketa-proiektuak areagotzea. Emakumeen ekoizpen zientifikoa eta parte-hartze aktiboa ikusaraztea osasun-ikerketan                               |

## IV

### GAIXOTASUN KRONIKOAK DITUZTEN ETA MENDEKOTASUN-EGOERAN EDO -ARRISKUAN DAUDEN ADINEKOEI ARRETA EMATEKO SISTEMA INDARTZEA

|     |   |
|-----|---|
| 26. | Etxean adinekoei zuzendutako gizarte-zerbitzuak indartzea: lehen mailako arreta, oro har, bigarren mailako arretako zerbitzu eta prestazio jakin batzuk (eguneko zerbitzuak, laguntza-produktuak, familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoak ...) eta zaintzaileei atseden hartzeko aukerak |
| 27. | Adinekoentzako bizitegi-eredu integrala bultzatzea. Pertsona ardatz duen eredu bat, non erabiltzailearen laguntza-beharrak, erosotasuna eta aisialdia lehenesten diren  |
| 28. | Adinekoei Arreta Emateko hiru Bulego abian jartzea, Eusko Jaurilaritzaren kanal anitzeko zerbitzu gisa, gai izan dadin informazioa, orientazioa, aholkularitza eta laguntza integrala eta espezializatua emateko, haien interes eta premiei dagokienez  |
| 29. | Gaixotasun kronikoak dituzten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako iraupen luzeko zainketa sistema integrala, prebentzioa bultzatu eta autonomia sustatzen duena, zaintzaileari laguntzeko estrategia, plan eta neurri multzo bat barne duelarik  |
| 30. | Zaintzan gizonen erantzunkidetasuna sustatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak bultzatutako sentsibilizazio-, kontziliazio- eta trebakuntza-neurrien bidez, Emakunderekin lankidetzan  |